

/2021 FORU DEKRETUA,                      aren              (e)koa, Nafarroako  
administrazio              publikoetako              langile              funtzionarioen  
lanaldiaren murrizketa arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011  
Foru Dekretua aldatzen duena

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua araberak, Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen osoa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarritzko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz. Bestalde, aipatu 13/1982 Lege Organikoaren 23. artikulua Nafarroako Gobernuari ematen dio erregelamendu-funtzioa, eta aipatzen du Nafarroako Gobernuak ematen dituen xedapen orokorrak foru dekretu izanen direla.

Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 3. artikuluan aipatzen da zer kasutan murrizten den Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldia zerbitzuaren beharrak aintzat hartu gabe. 3. apartatuan ezartzen da genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioek eskubidea dutela lanaldia murrizteko egiaz babestuak izan daitezen edota gizarte laguntza osoa izan dezaten.

Bestetik, apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 9. artikulua lanaldi murriztuaren ordainsaria arautzen du eta ezartzen du lanaldi murrizketak berekin dakarrela funtzionarioaren ordainsari guztien murrizketa proportzionala, familia laguntzarena izan ezik. Artikulu berean arautzen da orobat lanaldi murriztuari dagozkion ordainsarien arabera kalkulatu direla kotizazio sozialak eta haiei dagozkien deskontuak.

Azaldutakoaren arabera, ondorioztatzen da ez dagoela genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioei aplikatu beharreko ordainsari-araubidearen erregulazio espezifikorik, Nafarroako administrazio publikoetako gainerako funtzionarioei aplikatu beharrekoaz bestelakoa.

Hala ere, enpleguan eta lanean emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege-dekretuaren bidez, aldatu egin zen Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren 49. artikuluko d) letra, azken paragrafo bat gehitzeko, non ezartzen baita emakumeen gaineko indarkeriaren biktimak diren emakumezko funtzionarioek eskubidea dutela beren ordainsari osoak jasotzeko, beren lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten dutenean.

Aldaketa hori botere publikoek desberdintasun-egoeren aurrean emakumeen aldeko neurri espezifikokoak hartzeko duten betebeharraren ondorio da, bi generoen arteko berdintasunari zuzenean eragiteko helburuarekin.

Arauketa hori kontuan hartuta, Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011

Foru Dekretua aldatu behar da, eta, hala, Nafarroako administrazio publikoetako emakumezko funtzionarioei, baldin eta genero indarkeriaren biktimak badira, ez zaizkie ordainsariak aldatuko, beren lanaldia heren bat edo gutxiago murriztuz gero.

Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren XI. kapituluan xedatuarekin bat, proiektua negoziazio kolektiboan aztertu da, negoziazio-mahai orokorreko sindikatuen ordezkariekin.

Halaber, kontuan harturik Erregelamenduak Nafarroako administrazio publiko guztiak ukitzen dituela eta, beraz, toki entitateak ere bai, proiektua Toki Araubideko Foru Batzordeak aztertu du.

Horrenbestez, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat etorrita, eta Nafarroako Gobernuak 2021eko aren (e)ko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

#### DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 9. artikulua aldatzea.

Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 9. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, honako testu hau izanen duena:

"3. Genero indarkeriaren biktimak diren emakumezko funtzionarioak aurreko apartatuetan ezarritakotik salbuesten dira. Horregatik, ordainsari osoak jasoko dituzte beren lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten dutenean".

#### AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena.- Foru dekretuaren garapena eta aplikazioa.

Ahalmena ematen zaio Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari behar diren xedapenak eman ditzan foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena.- Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, (e)ko (e)aren (e)(a)n.-Nafarroako Gobernuko lehendakaria, María Victoria Chivite Navascués.- Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía.